Horregatik, Herrilan eta Garraio Saileko foru diputatuaren proposamenez, eta Diputatuen Kontseiluak gaur egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hauxe

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Onartzea, eskuragarri den aurrekontuaren esparruan barruan, deialdi publiko hau: maiatzaren 22ko Diputatuen Kontseiluaren 31/2012 Foru Dekretuaren bidez onartutako oinarri orokorrek arautzen duten deialdia, hain zuzen, 2013ko deialdirako Arabako Lurralde Historikoan bizi diren AP-68 autobidearen erabiltzaileek diruz laguntzekoa den bide zatian ordaindutako bidesarirako dirulaguntzak emateko. Dekretu hori 2012ko maiatzaren 30eko ALHAOn (62. zenbakia) argitaratu zen.

Bigarrena. 200.000,00 euro esleitzea Arabako Foru Aldundiaren 2012ko aurrekontuetan (2013ra luzatuak) 50.1.07 54.00 460.00.01 aplikazioan, 50-39 lerroan, “AP-68ko bidesari soziala” (xedapen erreferentzia 105-515/000.13.5.13).

Hirugarrena. Zenbateko hori Arabako Foru Aldundiak erabilgarri dituen aurrekontu baliabideen arabera handitu ahal izango da.

Laugarrena. Deialdia urte osoan egongo da irekita, helburu horretarako ezarritako aurrekontua agortzen den arte.

Diruz lagundutako joan-etorriak egiten diren hiruhilekoa bukatu eta hurrengo hilabetearen barruan, Herrilan eta Garraio Sailak erabakiko du dirulaguntzak bidezkoak direnetz, eta diruz lagundutako zenbatekoak onuradunei ordaintzeko aginduko du.

Bosgarrena. Erabaki hau ALHAOn argitaratzeko agindua ematea.

Seigarrena. Ebazpen hau behin betikoa da administrazio bidean eta haren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkeztu ahal izango duzu, Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegian. Horretarako, BI HILABETE izango dituzu, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, administrazioarekiko auzietarako jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak 46. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz. Hala ere, nahi izanez gero, berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango diozu egintza eman zuen organoari HILABETEKO epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik aurrera, edo egoki jotzen duzun beste edozein errekurtso.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko otsailaren 26a.– Diputatu Nagusia, JAVIER DE ANDRÉS GUERRA.– Herrilan eta Garraio Saileko foru diputatua, ALICIA RUIZ DE INFANTE AGUIRRE.

En su virtud, a propuesta de la Diputada de Obras Públicas y Transportes, y previa deliberación del Consejo de Diputados en Sesión celebrada en el día de hoy.

ACUERDO

Primero. Aprobar, dentro del marco presupuestario disponible, la convocatoria pública dirigida a la concesión de las subvenciones en el peaje satisfecho en el tramo subvencionable por los usuarios de la autopista AP-68 residentes en el Territorio Histórico de Álava para el 2013, que se regirá por las Bases Generales aprobadas mediante Decreto Foral 31/2012, del Consejo de Diputados 22 de mayo, publicado en el BOTHA nº 62 de 30 de mayo de 2012.

Segundo. Consignar el importe de 200.000,00 euros con cargo a la aplicación presupuestaria 50.1.07 54.00 460.00.01, línea 50-39 “Peaje Social A-68”, del Presupuesto de la Diputación Foral de Álava del ejercicio 2012, prorrogado para el 2013, referencia de contraído 105-515/000.13.5.13.

Tercero. Dicha cantidad podrá ser incrementada en función de las disponibilidades presupuestarias de la Diputación Foral de Álava.

Cuarto. La convocatoria se mantendrá abierta durante todo el año hasta agotar el presupuesto destinado al efecto.

Dentro del mes siguiente a la finalización del trimestre natural al que tengan lugar los desplazamientos subvencionados, el Departamento de Obras Públicas y Transportes determinará la procedencia de las subvenciones y ordenará el abono a los beneficiarios de las cantidades subvencionadas.

Quinto. Ordenar la publicación del presente Acuerdo en el BOTHA.

Sexto. La presente resolución es definitiva en vía administrativa y contra la misma podrá interponer recurso Contencioso-Administrativo ante el Juzgado de lo Contencioso Administrativo de Vitoria-Gasteiz, en el plazo de DOS MESES contados desde el día siguiente al de recepción de la presente notificación, conforme a lo dispuesto en el Art. 46 de la Ley 29/1998 de 13 de julio, reguladora de dicha jurisdicción. Todo ello sin perjuicio de poder interponer, con carácter potestativo, Recurso de Reposición ante el mismo órgano que dictó el acto, en el plazo de UN MES contado desde el día siguiente al de recepción de la presente notificación, o cualquier otro recurso que estime procedente.

Vitoria-Gasteiz, 26 de febrero de 2013.– El diputado general, JAVIER DE ANDRÉS GUERRA.– La diputada Foral de Obras Públicas y Transportes, ALICIA RUIZ DE INFANTE AGUIRRE.

## EKONOMIA SUSTAPENAREN ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

967

**82/2013 ERABAKIA, otsailaren 19ko Diputatuen Kontseiluarena. Honen bidez, onartu egiten da prestakuntza ekipamenduan inbertitzeko laguntzen 2013ko deialdia.**

Ekonomia Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Sailak garatu beharreko eskumen eta eginkizunen artean ondokoa ageri da: irabazteko xederik gabeko erakundeei zuzenduriko laguntza programa eta planak kudeatu eta izapidetzea, Araban lanbide heziketa sustatu eta indartzeko.

Kalitatezko hezkuntza batean oso zuzen eragiten duen gorabehera bat da prestakuntza ekipo eguneratuak izatea, hots, gertatzen ari diren aurrerapen teknologikoak eta pedagogikoak eta instalazio moderno eta funtzionalak biltzen dituen gorabehera.

Horiek horrela, aipatutako helburuak lortze aldera, prestakuntza ekipoetan inbertitzeko 2012ko laguntza programa deitzen da. Deialdi hori prestakuntza jarduerak antolatzen dituzten Arabako lanbide heziketako ikastetxeei eta irabazteko xederik gabeko erakundeei zuzentzen zaie.

## DEPARTAMENTO DE PROMOCIÓN ECONÓMICA Y ADMINISTRACIÓN FORAL

967

**ACUERDO 82/2013, del Consejo de Diputados de 19 de febrero, que aprueba la convocatoria de ayudas a la Inversión en equipamiento formativo 2013.**

Entre las competencias y funciones a desarrollar por el Departamento de Promoción Económica y Administración Foral figura la de “Gestión y tramitación de Programas y Planes de ayudas dirigidos a Entidades sin ánimo de lucro, con el fin de promover y reforzar la formación profesional en Álava”

Una circunstancia que incide muy directamente en la oferta de una enseñanza de calidad, es la disposición de un equipamiento formativo actualizado con respecto a los continuos avances tecnológicos y pedagógicos que se van produciendo, así como unas instalaciones modernas y funcionales.

En este sentido, y con el fin de ayudar a conseguir esos objetivos, se convoca el Programa de Ayudas a la Inversión en equipamiento formativo 2013, destinado a los Centros de Formación Profesional y otras Entidades sin ánimo de lucro de Álava que realizan acciones formativas.

Horregatik guztiagatik, Ekonomia Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatuaren proposamenez, eta Diputatuen Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, honakoa

ERABAKI DUT

1.- Eskueran den aurrekontuaren baitan, prestakuntza ekipoetan inbertitzeko laguntzetarako 2012ko deialdia onartzea. Deialdi hori honekin batera doan eranskinak eta martxoaren 6ko Diputatuen Kontseiluaren 17/2012 Foru Dekretuaren bidez onartutako oinarri arauek arautuko dute. Foru dekretu hori 2012ko martxoaren 26an argitaratu zen, ALHAOn.

2.- Erabaki honen bidez arautudako dirulaguntzak 2013rako luzatutako 2012ko aurrekontuko 30.5.01.07.00.761.00.01 partidaren kontura (xedapen erreferentzia: 388/000; zuzkidura: 100.000 euro) ordainduko dira.

3.- Deialdi hau ALHAOn argitaratzea. Deialdi hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango da indarrean.

Gasteiz, 2013ko otsailaren 19a.– Diputatu nagusia, JAVIER DE ANDRÉS GUERRA.– Ekonomia Sustapenaren eta Foru Administrazioaren diputatua, JOSÉ ZURITA LAGUNA.– Ekonomia Sustapenaren zuzendaria, BLANCA LACUNZA BLÁZQUEZ.

**ERANSKINA**

**PRESTAKUNTZA EKIPOETAN INBERTITZEKO LAGUNTZAK**

**2013ko deialdiaren oinarriak**

I. KAPITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

**1. artikulua.- Xedea eta aplikazio eremua.**

Deialdi honen xede da arautu gabeko prestakuntza ikastaroak eskaintzen dituzten Arabako lanbide heziketako ikastetxeen eta irabazteko xederik gabeko erakundeen ekipoen eta instalazioen eguneraketa ahalbidetzea.

Deialdi honen bidez diruz lagundu daitezkeen ekipoak Arabako lurralde historikoko zentro eta ikasgeletan erabiliko dira.

**2. artikulua.- Erakunde onuradunak.**

Deialdi hau dela eta, Arabako honako erakunde hauek izan ahalko dira onuradun:

a) Lanbide heziketako ikastetxeak.

b) Irabazteko xederik gabeko elkarteak, fundazioak edo bestelako erakundeak.

Dena den, onuradun izateko, ezinbestekoa izango da Arabako Foru Aldundiak sustatutako prestakuntza laguntzen programen baitan diruz lagundutako prestakuntza planak egin izana edo egiten aritzea. Horretarako, artean baziren erakundeen bategitetik sortutako erakunde berriei dagokionez, bazirenen historiala hartuko da aintzat.

Halaber, erakunde onuradunek Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko zerga betebeharrak egunean izan beharko dituzte, 58/2004 Foru Dekretuan ezarritakoaren arabera, bai emateko ebazpenaren aurretik, bai dirulaguntza jasotzeko unean.

**3. artikulua.- Aurrekontu zuzkidura.**

3.1.- Deialdiaren zuzkidura 100.000,00 euro da. Diru kopuru horretatik 90.000 euro lanbide heziketako ikastetxeek aurkeztutako eskaerei erantzuteko erabiliko dira, eta 10.000 euro, berriz, irabazteko xederik gabeko elkarte, fundazio edo bestelako erakundeek aurkeztutakoei erantzuteko.

3.2.- LHko ikastetxeentzakoa ikastetxe horiek aurkeztutako eskaerekin betetzen ez bada, soberakina erabiliko da eskaera aurkeztu duten irabazteko xederik gabeko gainerako elkarte eta erakundeei dirulaguntza emateko.

En su virtud, a propuesta del Diputado de Promoción Económica y Administración Foral y previa deliberación del Consejo de Diputados en Sesión celebrada en el día de hoy

ACUERDO

1.- Aprobar, dentro del marco presupuestario disponible, la convocatoria pública de ayudas para Inversión en equipamiento formativo 2013, que se regirá por el documento anexo y las Bases Generales aprobadas mediante Decreto Foral 17/2012, del Consejo de Diputados de 6 de marzo, publicado en el BOTHA del lunes 26 de marzo de 2012.

2.- Las subvenciones reguladas mediante este Acuerdo se abonarán con cargo a la partida 30.5.01.07.00.761.00.01 del Presupuesto 2012 prorrogado al 2013, con referencia de contraído 388/000 y una dotación de 100.000 euros.

3.- La presente convocatoria se publicará en el BOTHA y entrará en vigor a partir del día siguiente de su publicación.

Vitoria-Gasteiz, 19 de febrero de 2013.– El diputado general, JAVIER DE ANDRÉS GUERRA.– El diputado de Promoción Económica y Administración Foral, JOSÉ ZURITA LAGUNA.– La directora de Promoción Económica, BLANCA LACUNZA BLÁZQUEZ.

**ANEXO**

**AYUDAS A LA INVERSIÓN EN EQUIPAMIENTOS FORMATIVOS**

**Bases de la Convocatoria de 2013**

CAPÍTULO I

DISPOSICIONES GENERALES

**Artículo 1.– Objeto y ámbito de aplicación.**

El objeto de la convocatoria es posibilitar la modernización de equipamiento e instalaciones de los Centros de Formación y Asociaciones y entidades sin ánimo de lucro de Álava que imparten cursos de formación no reglada.

Los equipamientos que puedan resultar subvencionadas por esta Convocatoria, deberán corresponder y prestar el servicio a que son destinados en centros o aulas situados en el Territorio Histórico de Álava.

**Artículo 2.– Entidades Beneficiarias.**

2.1.- A los efectos de la presente Convocatoria, tendrán la consideración de beneficiarias las siguientes entidades de Álava:

a) Centros de Formación Profesional.

b) Asociaciones, Fundaciones u otros entes sin ánimo de lucro.

En todo caso, sólo podrán ser beneficiarias aquellas entidades que estén desarrollando o hayan desarrollado con anterioridad planes de formación subvencionados dentro de los Programas de Ayudas a la Formación promovidos por la Diputación Foral de Álava. A estos efectos, y en el caso de nuevas entidades resultantes de la fusión de otras preexistentes, se considerará el historial de estas últimas.

Las entidades beneficiarias deberán hallarse al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias con Hacienda y con la Seguridad Social en los términos estipulados en el Decreto Foral 58/2004, con carácter previo tanto al momento de la resolución de concesión como al del abono de la subvención.

**Artículo 3.– Dotación presupuestaria.**

3.1.- La dotación de la Convocatoria se cifra en 100.000 euros, de los cuales 90.000 euros serán destinados a solicitudes presentadas por los Centros de Formación Profesional y 10.000 a solicitudes presentadas por Asociaciones, Fundaciones u otros entes sin ánimo de lucro.

3.2.- En caso de que la parte destinada a los Centros de FP no quede cubierta con las solicitudes presentadas por dichos Centros, el importe sobrante se destinará a subvencionar solicitudes presentadas por el resto de Asociaciones y Entidades sin ánimo de lucro.

Era beran, irabazteko xederik gabeko erakundeentzakoa guztiz erabiltzen ez bada, LHko ikastetxeei aplikatu ahal izango zaie soberakina.

**4. artikulua.- Laguntza jaso dezaketen jarduerak.**

4.1.- Hona hemen laguntza jaso dezaketen jarduerak:

• Inbentariagarri diren aktiboak (makinak, tresnak, lanabesak eta bestelako prestakuntza gaiak) erostea, Araban arautu gabeko prestakuntzaren kalitatea hobetzen badute.

• Prestakuntza ikasgeletako instalazioak eraberritzeko, egokitzeko edo hobetzeko obrak (obra zibilak, instalazio laguntzaileak...)

4.2.- Inbentariagarriak diren aktiboak erosiz gero, prestakuntza ikastaroekin lotuta egongo dira eta haietan baino ez dira erabiliko.

Eraberritze obrak direla eta, prestakuntza ikasgeletako zaharberritze lanak baino ez dira diruz lagunduko.

4.3.- Ez dira diruz lagunduko ondoko eratako ekipoak:

• Ikastaroetarako beharrezkoa den material suntsikorra erostea.

• Aplikazio informatikoak edo teknologikoak erabili ahal izateko lizentziak.

• Administrazioko gailuak: fotokopiak, faxak...

• Prestakuntza ikasgelan ez dauden baina prestakuntzan baino erabiltzen ez diren tresna informatikoak, hala nola, ordenagailuak, inprimagailuak.

• Prestakuntza programa jakin baten zati ez diren zernahi erabilera orokor eta partekatutako gailuak, hala nola, argazki makinak, bideo hitzaldiak, bideo-gailuak.

Zalantzarik izanez gero, Idazkaritza Teknikoko Zerbitzuak arrazoitutako txosten bat egingo du, eskatutakoa deialdiaren oinarrietara egokitzen den ala ez adieraziz, eta balorazio batzordeak, 11. artikuluan zehaztutakoak, dirulaguntza eman ala ez proposatuko du.

**5. artikulua.- Inbertsioa egiteko aldia.**

Arabako Foru Aldundiak dagokion ebazpenean zehaztuko du zein den gehienezko data ekipamendua jartzeko eta diruz lagundutako obrak egiteko, egiten den inbertsio motaren edo instalazio egokitzapenaren arabera. Epe hori, beti ere, 2013ko abenduaren 13a baino lehen amaituko da.

**6. artikulua.- Dirulaguntzen zenbatekoak eta mugak.**

6.1.- Kapitulu honetan jasotako laguntzak dirulaguntza bidez gauzatuko dira. Dirulaguntzen zenbatekoa ondokoa izango da:

• Ekipoak eta horien material lagungarria eskuratzearen kostuaren ehuneko 80raino.

• Onartutako aurrekontuaren ehuneko 80raino, instalazioen hobekuntzarako egindako inbertsioa bada (obra zibila, instalazio lagungarriak, e.a.).

6.2.- Lanbide heziketako ikastetxeen kasuan onuradun bakarrak proiektu bategatik edo gehiagogatik gehienez jaso dezakeen dirulaguntzak ezingo ditu gainditu ondoko moduluak, aurreko ikasturteko ikasleen erabateko kopuruaren arabera:

| IKASTETXEKO IKASLE KOPURUA | GEHIENEKO DIRULAGUNTZA |
|---|---|
| Gehienez, 1.000 | 10.000 euro |
| 1.001-2.000 bitartean | 15.000 euro |
| 2.001-3.000 bitartean | 25.000 euro |
| 3.001 - 5.000 bitartean | 35.000 euro |
| 5.000 baino gehiago | 45.000 euro |

Muga horiek aplikatu eta 90.000 euroko esleipena agortuko ez balitz, gainerako saldoa zerrendako hurrengo lanbide heziketako ikastetxeen artean banatuko litzateke, lehentasun ordena kontuan izanda, harik eta dagoen dirua agortu arte.

6.3.- Irabazteko xederik gabeko elkarte, fundazio edo bestelako erakundeen kasuan proiektu bat edo gehiagogatik onuradunak jaso dezakeen dirulaguntza gehienez 3.000 eurokoa izango da.

Así mismo, si la fracción destinada a Entidades sin ánimo de lucro no se cubriera en su totalidad, el remanente disponible podrá ser aplicado a los Centros de FP.

**Artículo 4.– Actividades susceptibles de ayuda.**

4.1.- Serán susceptibles de ayuda:

• la compra de activos inventariables (máquinas, utensilios, herramientas u otros elementos formativos), que mejoren la calidad de la formación no reglada en Álava.

• las obras de reforma, adecuación o mejora de las instalaciones (obra civil, instalaciones auxiliares, etc.) en las aulas de formación.

4.2.- En el caso de compra de activos inventariables, deberán estar relacionados directa y exclusivamente con la impartición de cursos de formación.

En el caso de obras de reforma, sólo serán subvencionables las obras de reformas de aulas de formación.

4.3.- No serán subvencionables los siguientes tipos de equipamiento:

• la adquisición de material fungible para el desarrollo de los cursos.

• las licencias de uso de aplicaciones informáticas o tecnológicas.

• elementos comunes de administración: fotocopiadoras, fax u otros.

• elementos informáticos (ordenadores, impresoras u otros) que no estén físicamente ubicados en un aula de formación y se destinen exclusivamente a fines formativos.

• cualquier otro elemento de uso compartido y general que no forme parte de un programa formativo determinado (cámaras de fotos y/o de vídeo-conferencias, aparatos de vídeo u otros).

En caso de duda, el Servicio de Secretaría Técnica emitirá informe razonado sobre la adecuación de lo solicitado a las Bases de la Convocatoria, y la Comisión de Valoración a que se refiere el artículo 11 elevará propuesta sobre la procedencia o no de conceder la subvención.

**Artículo 5.– Periodo de realización de la inversión.**

La Diputación Foral de Álava establecerá en la resolución correspondiente y a la vista del tipo de inversión o de adecuación de instalaciones que se realice, la fecha límite para la disposición del equipamiento y/o ejecución de las obras subvencionadas. Dicha fecha no será en ningún caso posterior al 13 de diciembre de 2013.

**Artículo 6.– Cuantías y límites de las ayudas.**

6.1.- Las ayudas contempladas en este Capítulo, se materializarán a través de subvenciones que podrán alcanzar:

• hasta el 80 por ciento del coste de adquisición de los equipos y material auxiliar de los mismos.

• hasta el 80 por ciento del presupuesto aprobado, si se trata de inversión en mejora de instalaciones (obra civil, instalaciones auxiliares, etc.).

6.2.- En el caso de «Centros de Formación Profesional» la subvención máxima a otorgar a un solo beneficiario, por uno o varios proyectos, no podrá superar los siguientes módulos, en función de la cifra total de alumnado habida en el año anterior:

| Nº ALUMNOS DEL CENTRO | SUBVENCIÓN MÁXIMA |
|---|---|
| Hasta 1.000 | 10.000 euros |
| de 1.001 a 2.000 | 15.000 euros |
| de 2.001 a 3.000 | 25.000 euros |
| de 3.001 a 5.000 | 35.000 euros |
| más de 5.000 | 45.000 euros |

En el supuesto de que tras la aplicación de estos límites no se agotara la asignación de 90.000 euros, el saldo restante sería aplicado a las siguientes solicitudes del orden de prelación de Centros de FP, hasta agotar dicho saldo.

6.3.- En el caso de «Asociaciones, Fundaciones u otros entes sin ánimo de lucro», la subvención máxima a otorgar por uno o varios proyectos, no podrá superar el importe máximo de 2.000 euros por beneficiario.

6.4.- Ez da ekipoetan inbertsioa egiteko proposamenik diruz lagunduko, onuradun bakarra izanik, oro har, diruz laguntzeko aurrekontua 1.000 euro baino gutxiagokoa bada.

**7. artikulua.- Hautatze eta balorazio irizpideak.**

Jasotako eskaerak ondoko irizpideei jarraituta balioetsiko dira:

a) Ekipoak erosteko beharra edo instalazioen hobekuntza lanak egitea justifikatzeagatik (0-70 puntu).

b) Aurkeztutako eskabidearen kalitatea eta edukia (0-30 puntu).

**8. artikulua.- Hauta daitezkeen gastuak.**

8.1.- Diruz laguntzeko moduko gastu izango dira onartutako inbertsio proiektuetan jasotakoak erosi, instalatu eta berritzeak eragindako gastuak.

8.2.- Erakunde onuradunek jasandako Balio Erantsiaren gaineko Zerga (BEZ) diruz lagunduko da, erakunde haiek zerga aldetik konpentsatu ezin duten heinean. Horretarako eta aplikagarri bada, erreferentzia izango da aurreko ekitaldiko behin betiko prorrata. Zalantzarik izanez gero, BEZa ez da diruz lagunduko, baldin eta erakunde onuradunak egiaztatzen ez badu ezin duela kendu.

8.3. Diruz lagundu ahal den gastua 50.000 euro baino gehiago bada, obrei gagozkiela, edo 18.000 euro baino gehiago, ekipo erosketei gagozkiela, gutxienez, hiru eskaintza eskatu beharko dira, baldin eta merkatuan halakorik eskain dezakeenik bada.

II. KAPITULUA

DIRULAGUNTZAK ONARTU, KUDEATU ETA ORDAINTZEKO PROZEDURAK

**9. artikulua.- Inprimaki ereduak eta eskaerak aurkeztea.**

Deialdi honetan deskribatzen diren laguntzak eskatzeko inprimaki ereduak Ekonomiako Idazkaritza Teknikoko Zerbitzuan eskura daitezke (Probintzia Plaza 5 - 1, 01001 Vitoria-Gasteiz), baita www.alava.net web orrian ere.

**10. artikulua.- Eskabideak aurkezteko epea eta lekua.**

10.1.- Eskaerak Arabako Foru Aldundiko Ekonomia Sustapen Zuzendaritzako Ekonomiako Idazkaritza Teknikoko Zerbitzuari egingo zaizkio eta Arabako Foru Aldundiaren erregistro orokorrean edo itundutako udaletako erregistro orokorretan aurkeztuko dira. Dena den, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan xedatutako eran ere aurkeztu ahal izango da. Lege hori urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatu zuen.

10.2.- Eskaerak aurkezteko 30 egun izango dira, deialdia ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

**11. artikulua.- Dirulaguntzak emateko prozedura.**

11.1.- Oinarri hauetan aurreikusten diren dirulaguntzak jasotzeko prozedura lehiaketa izango da.

11.2.- Dirulaguntza emateko prozedura Ekonomia Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Sailak izapidetuko du, Ekonomiako Idazkaritza Teknikoko Zerbitzuaren bidez.

11.3.- Ondokoek eratuko dute balorazio batzordea edo oinarri orokorrak arautzen dituen martxoaren 6ko Diputatuen Kontseiluaren 17/2012 Foru Dekretuaren 6. artikuluan aipatutako kide anitzeko organoa:

• Batzordeburua: Ekonomia Sustapeneko zuzendaria edo hark eskuordetutako pertsona.

• Batzordekideak: Ekonomiako Idazkaritza Teknikoko Zerbitzuaren burua edo hark eskuordetutako pertsona eta Ekonomia Sustapenaren Zuzendaritzako teknikari bat, idazkari lanetan ere jardungo duena.

6.4.- No se subvencionarán propuestas de inversión en equipamiento que, en conjunto y para un solo beneficiario representen un presupuesto total subvencionable inferior a 1.000 euros.

**Artículo 7.– Criterios de selección y valoración.**

Las solicitudes recibidas serán valoradas de acuerdo a los siguientes criterios:

a) Por la justificación de la necesidad de compra de los equipos o de la realización de obras de mejora de instalaciones (0-70 puntos).

b) Por la calidad y contenido de la solicitud presentada (0-30 puntos).

**Artículo 8.– Gastos elegibles.**

8.1.- Se considerarán como gastos susceptibles de subvención, los de adquisición, instalación y/o reforma que figuren en el proyecto de inversión aprobado.

8.2.- El Impuesto sobre el Valor Añadido (IVA) soportado en el coste subvencionable por las entidades beneficiarias, se considerará así mismo subvencionable en la medida en que no pueda ser compensado fiscalmente por estas. A estos efectos y en los casos que resulte aplicable, se tomará como referencia la prorrata definitiva del ejercicio inmediato anterior. En caso de duda, el IVA no será subvencionable, salvo que la Entidad Beneficiaria pueda demostrar efectivamente que no se lo puede deducir.

8.3.- La adjudicación de las obras que impliquen un gasto subvencionable superior a 50.000 euros, o 18.000 euros en el caso de compra de equipamientos, deberá efectuarse previa petición de tres ofertas a los posibles contratistas, salvo que no exista en el mercado número suficiente de ellos.

CAPÍTULO II

PROCEDIMIENTOS DE CONCESIÓN, GESTIÓN Y ABONO DE LAS SUBVENCIONES

**Artículo 9. – Modelos de impresos y presentación de solicitudes.**

Los modelos de impresos para acogerse a las ayudas descritas en esta Convocatoria se encuentran disponibles en el Servicio de Secretaría Técnica de Economía (Plaza de la Provincia 5-1°, 01001 Vitoria-Gasteiz), así como en la página de Internet: www.alava.net.

**Artículo 10.– Lugar y plazo de presentación de solicitudes.**

10.1.- Las solicitudes estarán dirigidas al Servicio de Secretaría Técnica de Economía (Dirección Promoción Económica de la Diputación Foral de Álava) y se presentarán en el Registro General de la Diputación Foral de Álava o en los Registros Generales de los Ayuntamientos concertados. Todo ello sin perjuicio de lo establecido en el artículo 38.4 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, modificado por la Ley 4/1999, de 13 de enero.

10.2.- El plazo disponible para la presentación de solicitudes será de 30 días naturales y se iniciará a partir del día siguiente al de la fecha de publicación de la Convocatoria en el BOTHA

**Artículo 11.– Procedimiento de concesión de las subvenciones.**

11.1.- El procedimiento para la concesión de las subvenciones contempladas en estas Bases será el de concurrencia competitiva.

11.2.- La instrucción del procedimiento de concesión de subvención será realizado por el Departamento de Promoción Económica y Administración Foral a través de su Servicio de Secretaría Técnica de Economía.

11.3.- La Comisión de valoración, u órgano colegiado a que se refiere el artículo 6 del Decreto Foral 17/2012, del Consejo de Diputados de 6 de marzo que regula las Bases Generales estará constituida por los siguientes miembros:

• Presidente: La Directora de Promoción Económica o persona en quien delegue.

• Vocales: El Jefe de Servicio de Secretaría Técnica de Economía, o persona en quien delegue, y un/a Técnico/a de la Dirección de Promoción Económica que actuará a su vez como Secretario/a.

11.4.- Aipatutako batzordeak eskaerak balioetsiko ditu, eta bi lehentasun ordena ezarri, bereiztuta, bata lanbide heziketako ikastetxeentzat eta bestea irabazteko asmorik gabeko erakundeentzat, eta ebazpen proposamena organo eskudunari aurkeztuko dio, eman beharreko ebazpena eman dezan.

11.5.- Ebazpenak interesdunari gutun ziurtatuaren bidez jakinaraziko zaizkio, jaso izanaren agiriarekin. Administrazio bidea agortzen duen ebazpen honen aurka aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio ebazpena eman zuen organoari berari edo, bestela, administrazioarekiko auzi errekurtsoa EAEko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzietarako salan. Lehena aurkezteko hilabete bat izango da eta bigarrena aurkezteko bi, jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera kontatuta.

11.6.- Oro har, eskaerari ezezkoa eman zaiola esan nahiko du, baldin eta berariazko ebazpenik eman ez bada 1/1999 Foru Dekretu Arautzaileak (administrazio isiltasunari dagokionez, foru araudia urtarrilaren 13ko 4/1999 Legera egokitzen du) 2. artikuluaren 14. paragrafoan ebazpena emateko eta jakinarazteko ezarritako gehienezko 4 hilabeteko epea igarota.

**12. artikulua.- Justifikaziorako aurkeztu beharreko dokumentazioa eta emandako dirulaguntzak ordainarazteko eskaera.**

Ondokoak aurkeztuko dira ordainketa izapidetzeko:

a) Diruz lagundutako inbertsioa egin dela egiaztatzen duen azken txostena. Txosten hori Ekonomia Sustapenaren Zuzendaritzaren arauzko inprimakietan egingo da.

b) Diru sarreren eta gastuen balantzea.

c) Egindako eraberritze edo erosketei dagozkien jatorrizko ordainagiriak edo haien fotokopia konpultsatuak.

d) Batera eskuratutako beste laguntza batzuei buruzko aitorpena, helburu bererako beste dirulaguntzarik jaso bada.

e) Erositako ekipoaren argazki inprimatuak, jarriko den tokian bertan atereak. Obren kasuan argazkiak ere aurkeztuko dira, obrak egin aurreko eta ondorengo egoerari buruzkoak.

Halaber, ordaindu bazaio, dagoeneko, hornitzaileari ekipoa edo zaharberritze obra, ordainagiria aurkeztuko da.

Agiri horiek jaso ondoren ikuskapen bisita egingo da, diruz lagundutako ekipo eta obrak modu egokian egin direla ziurtatzeko.

**13. artikulua.- Ordainketak justifikatzea.**

13.1.- Dirulaguntza aurreko agiriak aurkeztu ondoren ordaindu ahal izango da, justifikatu beharreko aurrerakin gisa.

13.2.- Ondoren erakunde onuradunak 300 euro edo gehiago egiten duten faktura guztiak hornitzaileei ordaindu izanaren frogagiriak aurkeztuko ditu. Horretarako banku laburpenen kopiak aurkeztuko dira, bestela, horien baliokide diren egiaztagiriak.

Agiri horiek aurkezteko epea 2014ko apirilaren 4ean bukatuko da.

13.3.- Eskakizun horiek betetzen ez badira, ordaindutako dirulaguntza itzultzea eskatuko da eta, gainera, etorkizuneko laguntza programetan baztertua izatea ekar dezake.

**14. artikulua.- Egiaztagiriak aurkezteko lekua eta epea eta dirulaguntza ordaintzeko eskaera.**

14.1.- Frogagiriak Ekonomiako Idazkaritza Teknikoko Zerbitzura igorriko dira eta helburu horretarako prestatutako arauzko ereduetan aurkeztuko.

Agiriak aipatutako 10.1 artikuluak jasotako erregistroren batean aurkeztuz gero, erreferentzia data erregistroan sarrera eman zitzaieneko eguna izango da, postaz bidaliz gero, berriz, postetxeak zigilua jarri zieneko eguna.

11.4.- Dicha Comisión de procederá a valorar las solicitudes recibidas estableciendo dos órdenes de prelación por separado, uno para Centros de FP y otro para Entidades sin ánimo de lucro, y elevará la propuesta de resolución al órgano competente, para la formulación de la resolución que corresponda.

11.5.- Las resoluciones se notificarán mediante carta certificada al interesado y con acuse de recibo. Contra esta resolución, que pone fin a la vía administrativa, podrá interponerse potestativamente el recurso de reposición ante el mismo órgano en el plazo de un mes desde el día siguiente a su notificación, o alternativamente, recurso contencioso-administrativo ante la Sala de igual orden del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en el plazo de dos meses, a contar desde el día siguiente a su notificación.

11.6.- Se entenderá, con carácter general, desestimada la solicitud si transcurrido el plazo máximo de 6 meses para dictar y notificar la resolución, establecido en el art. 2, apart. 14 del Decreto Foral Normativo 1/1999 que adapta la normativa foral sobre silencio administrativo a la Ley 4/1999, de 3 de enero, no se hubiera mediado resolución expresa.

**Artículo 12.– Documentación a presentar para la justificación y solicitud de abono de las subvenciones concedidas**

Para la tramitación del abono, se deberá presentar:

a) Memoria Final justificativa de la realización de la inversión subvencionada, de acuerdo con los formatos normalizados elaborados por la Dirección de Promoción Económica.

b) Balance de ingresos y gastos

c) Original o fotocopias compulsadas de las facturas correspondientes a la compra o reforma realizada

d) Declaración de ayudas concurrentes, en la que se hagan constar, cuando existan, otras posibles ayudas otorgadas para el mismo fin.

e) Fotografías impresas del equipamiento incorporado, en el lugar al que es destinado. En el caso de obras, se presentarán fotografías correspondientes al estado anterior y posterior a la realización de las mismas.

Así mismo, en el supuesto de que el equipamiento o la obra de reforma hubiese sido ya abonada al proveedor, se acompañará el justificante de pago realizado.

Una vez recibida esta documentación, se girará visita de inspección para comprobar la efectiva instalación de los equipos y obras subvencionadas.

**Artículo 13.– Justificación de pagos.**

13.1.- Una vez presentada la anterior documentación, se podrá proceder al abono de la subvención, que lo será en concepto de anticipo a justificar cuando estuviera pendiente el abono de las facturas.

13.2.- Con posterioridad, la entidad beneficiaria deberá remitir los justificantes del pago efectivo a los proveedores de todas las facturas cuyo importe sea igual o superior a 300 euros, debiendo aportar para ello original o fotocopia compulsada de los correspondientes extractos bancarios o documento de valor probatorio equivalente.

El plazo para la aportación de esta documentación finalizará el 4 de abril de 2014.

13.3.- El incumplimiento de estos requisitos dará paso a la correspondiente reclamación de reintegro de la subvención abonada, además de poder ser causa de exclusión en futuros Programas de Ayudas.

**Artículo 14.– Lugar y plazo de presentación de la documentación justificativa y solicitud de abono de la subvención.**

14.1.- La documentación justificativa irá dirigida a nombre del Servicio de Secretaría Técnica de Economía y se presentará en los modelos normalizados diseñados al efecto.

En el caso de presentación ante alguno de los Registros contemplados en el citado artículo 10.1, la fecha de referencia será la del Registro de Entrada que se trate, mientras que en el caso de envío postal, será la fecha del certificado de Correos.

14.2.- Agiriak aurkezteko azken eguna eskatutako dirulaguntzak onartzen edo ukatzen dituen ebazpenean jakinaraziko da.

14.3.- Egiaztagiriak epez kanpo aurkezten badira, emandako dirulaguntza kendu egin ahal izango da.

**15. artikulua.- Dirulaguntzak ordaintzea.**

Behin diruz lagundutako prestakuntza ekintza behar bezala egiaztatu ondoren, eta dirulaguntza emateari buruzko ebazpenean zehaztutako betekizun eta baldintzak bete ondoren, eman beharreko dirulaguntza likidatu egingo da.

III. KAPITULUA

BESTELAKO XEDAPENAK

**16. artikulua.- Eskaeran jakinarazitako datuak aldatzea.**

Diruz lagundutako ekipamenduak ezin izango dira ordeztu onartutakoez bestelako ekipamenduekin, Ekonomia Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Sailak hartarako baimen adierazia eman ezean.

Diruz lagundu daitekeen aurrekontuari hasieran onartu zaion muga oinarri hartuta, aldaketak onartu ahalko dira diruz lagundu daitezkeen kontzeptu eta zenbatekoetan, nahiz eta diruz lagundu daitekeen kontzepturen bat egin gabe gelditu izan. Desbideratze horiek Ekonomiako Idazkaritza Teknikoko Zerbitzuak ontzat eman behar ditu, salbu eta handia izaten bada aldaketa, halakoetan Ekonomia Sustapenaren Zuzendaritzak eman behar baititu ontzat.

Eskaeran jasotako datuak aldatzera eraman duten arrazoiak jakinarazten ez badira, dirulaguntza galdu edo murriztu ahal izango da, baldin eta Ekonomiako Idazkaritza Teknikoko Zerbitzuak uste badu aldaketa horrek dirulaguntzak ematerakoan kontuan hartu ziren baldintzak aldatu dituela.

**17. artikulua.- Azpikontratazioa.**

Oinarri hauetan deskribatzen diren erakunde onuradunek bitartekoekin hitzar dezakete bertan aipatu bezala dirulaguntza jaso dezaketen jarduerak osorik edo zati batean burutzea. Azpikontratazio horrek Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 29. artikuluan ezarritako betebeharrak izango ditu.

**18. artikulua. Arautegi aplikagarria.**

Deialdia oinarri espezifiko hauek eta Arabako Foru Aldundiko Ekonomia Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Sailaren dirulaguntzak lehiaketa bidez ematea arautzen duten oinarri orokorrek arautzen dute. Horiek martxoaren 6ko Diputatuen Kontseiluaren 17/2012 Foru dekretuaren bidez onartu eta 2012ko martxoaren 26ko ALHAOn argitaratu ziren, astelehenarekin.

**19. artikulua.- Xedapenak interpretatzea eta garatzea.**

Ekonomia Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatuari eskumena ematen zaio deialdi honetako oinarri espezifikoak interpretatzeko eta beharrezkoak diren ebazpenen bidez garatzeko, behar bezala aplika daitezen.

**20. artikulua.– Bateraezintasunak.**

Dirulaguntzen eskaera egin ondoren beste laguntzaren bat lortzen bada, berehala jakinarazi behar zaio idatziz Ekonomiako Idazkaritza Teknikoko Zerbitzuari eta horrek emandako dirulaguntzen zenbatekoa edo baldintzak aldatzea proposatu ahal izango du.

Deialdi honen bidez lortutako laguntzari besterik gehituko balitzaio, zernahi izan haren izaera (publikoa edo pribatua) edo hura ematen duen organoa, haien batuketak ezin izango luke diruz lagundutako jardueraren edo proiektuaren kostua baino gehiago egin.

14.2.- La fecha límite de presentación de la documentación se indicará en la resolución de aprobación o denegación de las subvenciones solicitadas.

14.3.- La presentación de la documentación justificativa fuera de los plazos señalados, puede dar lugar a la anulación de la subvención concedida.

**Artículo 15.– Abono de las subvenciones.**

Una vez justificada convenientemente la inversión formativa subvencionada, y cumplidos todos los requisitos y condiciones especificados en la resolución de concesión de la ayuda, se procederá a la liquidación de la subvención a que hubiere lugar.

CAPÍTULO III

OTRAS DISPOSICIONES

**Artículo 16.– Modificaciones de los datos incluidos en la solicitud.**

Los equipamientos u obras subvencionados no podrán ser sustituidos por otros diferentes a los aprobados, salvo autorización expresa del Departamento de Promoción Económica y Administración Foral.

Con el límite del presupuesto subvencionable inicialmente aprobado, se podrán admitir cambios en los conceptos subvencionables y sus importes económicos correspondientes y con independencia de que alguno de los conceptos subvencionables hayan podido no ser ejecutados. Estas desviaciones deberán contar con el visto bueno del Servicio de Secretaría Técnica de Economía, salvo en el caso de cambios sustanciales, en cuyo caso deberán contar con el visto bueno de la Dirección de Promoción Económica.

La no notificación de las circunstancias que motivan la modificación de los datos incluidos en la solicitud podrá ser causa de pérdida o minoración de la subvención si, a juicio del Servicio de Secretaría Técnica de Economía, dicha modificación haya supuesto alteración de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión de las subvenciones.

**Artículo 17.– Subcontratación**

Las Entidades beneficiarias podrán concertar con terceros la ejecución total o parcial de las actividades susceptibles de ayuda que se citan en las mismas, quedando sometida dicha subcontratación a las obligaciones que establece el artículo 29 de la Ley 38/2003 de 17 de noviembre (Ley General de Subvenciones)

**Artículo 18.– Normativa aplicable.**

Esta Convocatoria se rige por las presentes bases específicas y las bases generales reguladoras de la concesión de subvenciones en régimen de concurrencia competitiva del Departamento de Promoción Económica y Administración Foral de la Diputación Foral de Álava, aprobadas mediante Decreto Foral 17/2012, del Consejo de Diputados de 6 de marzo, publicado en el BOTHA del lunes 26 de marzo de 2012.

**Artículo 19.– Interpretación y desarrollo de disposiciones.**

Se faculta al Diputado Foral titular del Departamento Promoción Económica y Administración Foral para la interpretación de las Bases Específicas de la presente Convocatoria, y el desarrollo, mediante las correspondientes resoluciones, de cuantas disposiciones sean necesarias para su correcta aplicación.

**Artículo 20.– Incompatibilidades.**

La obtención de alguna ayuda concurrente con posterioridad a la entrega de la solicitud de las ayudas, deberá ser notificada inmediatamente y por escrito al Servicio de Secretaría Técnica de Economía, el cual podrá proponer la modificación de la cuantía o condiciones de la ayuda concedida.

En el caso de que a una ayuda concedida a través de la presente Convocatoria se sumaran otra u otras, cualesquiera que fuera su naturaleza y el órgano que las concediere, la cuantía de las ayudas recibidas de las distintas entidades concedentes de subvención públicas o privadas, no podrá superar el coste de la actividad o proyecto subvencionado.